

23 zenbakia
2017ko urria

bai

ziurtagiridunen
aldizkaria

#BaiEuskarariSariak17



ZERGATIK

Euskal moda



MIREN FULDAIN

Getariako Farmazia



JOXEMARI SORS

ETA JON JAKA

ELKAR Fundazioa



Rober Gutiérrez
[zuzendaria]
@robergutierrez

10 mila esker!

Hamar urte pasa dira Bai Euskarari Elkartea sortu genuenetik, 2000. urtean abian jarritako Bai Euskarari Ziurtagiriaren proiektua indartzeko, zabaltzeko eta sendotzeko bideari ekin genionetik.

Arazoi ugari ditugu urtemuga hau denon artean ospatzeko eta bidaideei eskertzeko. Guztiok batera, pertsona eta entitate asko baikara egitasmo honen parte, komunitatearen sustatzaille. Eskerrak eman nahi dizkiet, beraz, ibilbide gorabeheratsu honetan gurekin elkartu eta aurrera egiten lagundu diguten guztiei; esker mila euskararen presentzia arlo guztietan eta, bereziki, sozioekonomikoan sustatzen laguntzeagatik; eskerrak trabak gaintitzen lagundu digutenei. Eskerrik asko euskararen balioa ozen gorai patzeagatik.

Denon inplikazioari eta ekarpenari esker Bai Euskarari Elkartea pixkanaka hazi da eta jatorrizko proiektutik harago joatea lortu dugu. Izan ere, asko dira arlo sozioekonomikoan euskarren erabilera areagotzen laguntzeko urte hauetan martxan jarritako proiektuak eta ekimenak.

Gaur egun, Bai Euskarari Elkartea ziurtagiri bat baino askoz gehiago da. Baliabideak etengabe sortzen eta egu-

neratzen saiatzen gara, autodiagnostikorako aplikazioen edo praktika onak biltzen dituen gidaren bidez, besteak beste. Eta ez hori bakarrik; gero eta eragin handiagoa hartzen ari diren beste zenbait egitasmo ere ari gara elikatzen: Enpresarean, enpresen eta profesionalen sarea, Lanabes – Euskara Araban Lanean eta Lansarean lan-ataria, ibilbide profesionala euskaraz garatzeko aukera errazten duena.

Gaur pozik gaude, 10 urte bete ditugulako. Atzera begiratzen dugunean, lorpenak ikusten ditugulako eta aurrera jarraitzeko gogotsu gaudelako. Pozarren gaude Bai Euskarari Ziurtagiria duzuen guztiok egiten ari zareten lanagatik, zuen konpromisoagatik, zuen ereduagatik, zuen eraginagatik eta guztioi bidea erakusteagatik.

Bide-erakusle horien artean daude, esate baterako, Bai Euskarari Sarien zortzigarren edizio honetan nabarmenduko ditugunak. Esan bezala, aurtengo berezia da guretzat eta bihotzez aitortu nahi ditugu saridunak, egindako ibilbidearengatik, gizarteari egindako ekarpenagatik eta gure izarrak izateagatik. **Zergatik, Miren Fuldain, Joxemari Sors eta Jon Jaka**, zuei bereziki, zorianak eta 10 mila esker!

Joanmari Larrarte 03
Konpromisoari esker

Bai Euskarari sariak 04

Zergatik

Miren Fuldain

Joxemari Sors eta Jon Jaka

Aitor Arbeloa 06

Zergatik

Miren Fuldain 08

Miren Fuldain farmazia

Joxemari Sors eta Jon Jaka 10

Elkar fundazioa

10 urte iruditan 12

Gasteizko euskararen mapa 14

“Lehen hitzak balio handia du”

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkartea
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain
t. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0559255041
Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 673811048

Rogelia de Alvaro Elkarte Etxea A.1.1.
Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa
31014 Iruñea t. 673811048

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:
Bai Euskarari Elkartea eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak:
Bai Euskarari Elkartea eta Arteman Komunikazioa.

Inprimatzailea: Leitzaran

Banaketa: Bai Euskarari Elkartea

Lege gordailua: SS-497-2010

baieuskarari.eus





Joanmari
Larrarte
Telletxea

@joanmari

Elkarreko komunikazio eta
kultur arloko arduraduna

Konpromisoari esker

Euskalduntze prozesuan, herritarren eta eragileen konpromisoak sekulako eragina du. Konpromiso horri esker, besteak beste eragile sozio-ekonomiko askok bat egin dute Bai Euskarari ziurtagiriarekin, eta egunez egun euskaraz bizitzeko aukera ematen diote herritarrari.

Eragile indartsua da konpromisoa, nahiz eta ez den nahikoa hizkuntza baten normalizazioa helburu dugunean. Agerikoa da hizkuntza politika ezin daitekeela konpromisoan eta herritarren jarreran eta ahaleginean soilik oinarritu. Hizkuntza politikak neurriak eta arauak ere behar ditu, helburu argia jarrita, bideak jarri behar dituelako herritar orok euskara ere ezagutu dezan -gutxienez ulermen mailan-; aukerak sortu behar ditu hizkuntza erabiltzeko; eta arauak egin behar ditu, egoera gutxitutan dagoen hizkuntzan bizitzea eskubidea izan dadin eta hura bete dadin.

Gaur egun, jendearen borondatean oinarritutako hizkuntza politikak ditugu Euskal Herrian (eremu batzuetan horiek ere ez!), eta horiei esker ari gara urratsak egiten, urrats garrantzitsuak zalantzarik gabe, baina ez nahikoak. Epe jakin batean herri euskalduna lortzera bideratuko hizkuntza politika oso eta integral bat ezinbestekoa da horretarako, eta hori lortu ezean, urteetan lortutakoan atzera egiten ere has gaitzke, eta hori oso larria litzateke. Azken datuek erakutsi digute geldiene egoera hori, eta zenbait kasutan atzerapausoak ere bai; beraz hau katastrofista batzuen leloa baino zerbait gehiago da. Momentua da serio har dezagun administrazioek zein gizarte eragileek, eta hizkuntza politika eraginkorra diseinatu eta egikaritzen has gaitezen.

Bitartean, lerro hauen hasieran aipatutako konpromisoa ezinbestekoa zaigu, jendearen ahalegina balio handikoa baita urrats berriak egiteko. Aldizkari honetan bertan 2017ko Bai Euskarari sarien berri ematen da, eta horietan ikus daitezke eragile sozio-ekonomikoen borondatea eta ahalegina euskaldunari zerbitzua eman eta haren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Joxemari Sors eta Jon Jaka izendatu dira Bai Euskarari Lagun. Bizitza osoa euskara eta euskal kulturarekiko konpromisoan ulertu eta lan egin duten bi lagun. Eredu, zalantzarik gabe. Bidea erakutsi digute ondorengo belaunaldietakooi, bi horiek bezala beste askok herri honetan; guri dagokigu orain, huts ez egitea, eta haiek egindako bidean sakontzea.

Zergatik, Miren Fuldain Farmaziak, Joxemari Sorsek eta Jon Jakak jaso dituzte aurtengo Bai Euskarari Sariak

Bai Euskarari Elkarteak Zergatik, Miren Fuldain Farmazia, Joxemari Sors eta Jon Jaka (Elkar) saritu ditu urriaren 6an, Tabakalera ospaturiko Bai Euskarari Sarien emate-ekitaldian, alor sozioekonomikoan euskara sustatzearen alde egindako lanagatik eta ekarpenagatik.

Sariketaren zortzigarren edizioa izan da eta, gainera, Bai Euskarari Elkartearen 10. urteurrena ospatzeko aukera izan da. Oroitzapenekin batera, etorkizunera begira jartzeko aukera izan dute bertaratu diren enpresatako eta erakundeetako ordezkariak.

14:00etan ireki dira Tabakalera ateak, gonbidatuak saridunen izenak entzuteko irrikitan zeudelarik. Izan ere, aurreko urteetan ez bezala, irabazlearen izenak ez dira azken momentura arte jakinarazi.

Aurten ere hiru aitortza egon dira. Bai Euskarari ziurtagiria duten entitate guztien artean, bik Bai Euskarari Saria jaso dute. Lehenengo Bai Euskarari Saria emakumeentzako moda diseinatzen eta saltzen duen **Zergatik** enpresak jaso du. Bai Euskarari Ziurtagiriaren "Zerbitzua euskaraz" maila eskuratu zuen 2014an eta argi dute euskarak negozioaren garapenean laguntzen duela. Bigarren saria,

Getariako **Miren Fuldain Farmaziak** jaso du; farmaziak ere "Zerbitzua euskaraz" maila dauka eta bere iritziz, euskara erabiltzen duen edozein negoziok aukera ematen die bezeroei gusturago aritzeko.

Hirugarren saria berezia izan da aurtengoan. **Elkarreko Joxemari Sors eta Jon Jaka** saritzea erabaki da, enpresa eta euskal kulturaren munduan bikote eredugarria izateagatik. Euren ibilbidea eta jarrera aktiboa saritzeko aukera ona eskaini du Bai Euskarari Sarien ekitaldiak.

Sariketa magikoa

Sorpresaz beteriko eguna izan da, magikoa. Izan ere, aurten berritasun moduan, magiaren bidez gidatu da ekitaldia. Tor Magoa izan da sariketaren aurkezlea eta bere trikimailuek aho bete hortz utzi dituzte ikusleak. Ospakizun giroa egon da, kolore-

tsua, alai eta lagunartekoa; arlo guztietako entitateen iritziak, ideiak eta, batez ere, irribarreak elkar trukatzeko topagune bilakatu da Tabakalera.

Eta... hauek dira saridunak

Zortzigarren edizio honetan saridunen hautaketa publikoaren proposamenetatik abiatu da. Irailaren 1etik 15era zabalik egon zen hautagaiak proposatzeko aukera; galdetegi baten bidez hiru irabazleak proposatzeko aukera anitzak jaso ziren, sektore eta leku desberdinekoak. Aukeraketa erraza izan ez bada ere, Bai Euskarari Elkartearen zuzendaritzak osatutako epaimahaiak azken hiru saridunak izendatu zituen publikoaren proposamenak baloratu eta aukera bakoitzaren ezaugarriak eta ibilbidea aztertu ondoren. **Zergatik, Miren Fuldain Farmazia eta Joxemari Sors eta Jon Jaka**, zorionak.



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Eziago poligonoa, 21 • Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Joxemari Sors eta Jon Jaka



Miren Fuldain



Zergatik

kulturan egindako ibilbidearen ondoren, horien ikur bilakatu dira.

40 urte eman dituzte euskal kulturgintzan, **Elkarren** proiektuan murgildurik. Ibilbideak irribarreak eta malkoak jaso baditu ere, askoz gehiago dira une pozgarriak. Urratsak eta arrakasta nabarmenak izan dira eta bi lagun inplikazioa eta eragina eztaba daezina izan da. Bai Euskarari Saria eurena da, euskal gizarteari egindako ekarpenagatik eta ematen jarraituko dutenarengatik. ●

Zergatik Zergatik?

Zergatik emakumeentzako moda diseinatzen eta saltzen duen enpresa da, "Euskal moda"-ren erreferentia. Enpresa honek 16 urteko ibilbidea egin du eta euskara bizi-bizirik mantentzen du Bilbon, Donostian eta Iruñean dituen dendetan, bai eta Urrietako egoitza zentratean ere. Nazioartera begirako *on line* denda ere badu eta, bertan, euskara da nagusi.

2012ko maiatzean eskuratu zuten Bai Euskarari Ziurtagiria, eta "Bidean" mailatik "Zerbitzua euskaraz" mailara igo ziren 2014 urtean. Dendetan euskara zaintzen dute: errotilazioa, karteleria, langile euskaldunak kontratatzen dira (ezinbesteko baldintza da euskara jakitea)... Lan handia egiten ari dira eta, horregatik, Bai Euskarari Saria merezi dute.

Zergatik Miren Fuldain Farmazia?

2007ko uztailan Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu zuten, "Zerbitzua Euskaraz" maila. Bere hiru langileak euskaldunak dira eta berebi-

ziko garrantzia ematen diote hizkuntzari lanean, zein bizitzako gainerako arloetan.

Euskaraz bizi eta lan egiten dute eta argi dute Farmazia barruan eta kanpora begira ere, bezero eta lagun euskaldunekin euskaraz aritu behar dutela. Gainera, euren hizkuntza ohiturak partekatzeko eta beste farmazia batzuk laguntzeko ahalegin handia egiten dute, euskarazko baliabideak sortuz.

Miren Farmazilari Euskaldunen Elkarteko zuzendaritzan dago eta 2007an "Farmaburua saria" jaso zuen. Oraingoan "Bai Euskarari Saria" jaso du, ongi merezita.

Zergatik Joxemari Sors eta Jon Jaka?

Orain arte "Bai Euskarari laguna" saria pertsona bakarrak jasotzen bazuen ere, aurten biei ematea argi ikusi du Bai Euskarari Elkartearen zuzendaritzak. Izan ere, erretiroa hartu duten arren, "jubilatuta aktiboak" dira Joxemari Sors eta Jon Jaka. Euskara, enpresa eta euskal

Saridunak, urtez urte:

2009	JEZ (Laudio), IMH Institutua (Elgoibar) eta Kirmen Uribe.
2011	Refractarios Kelsen (Aduna), Hirukide ikastetxea (Tolosa), Sokoia (Hendaia) eta Xabier Mendiguren Bereziartu.
2012	Skunk Funk, Arlan (Erandio) eta Jose Anjel Iribar (Athletic).
2013	VUSA eraikuntzak (Galdakao), Leitzako, Aresoko, Goizuetako eta Aranoko ziurtagiridunak, Anaje Narbaiza (Elay).
2014	Banaiz Bagara, Mendia Optika (Gasteiz) eta Kike Amonarriz.
2015	Euskal Herria Esnea, Nekatur eta Gaizka Garitano.
2016	Sorginen Museoa eta Lezea (Zugarramurdi), Laneki eta Mikel Lezamiz (Mondragon taldea).

Aitor Arbeloa – Zergatik. Fundatzailea eta sormen arduraduna

Euskal moda mundura begira

Euskal moda biluzten eta ulertzen lagundu digu Aitor Arbeloak, Zergatik arropa markaren fundatzaile eta sormen arduradunak. Eskaintzen dituzten jantzien bidez mugak gainditu eta emakumearen berezko identitatea azalera dute helburu, kolore eta asimetria dosi batekin. Euskal modaren sortzaileek, 16 urteko ibilibidea egin ondoren eta mundura begira jarrita, argi dute euskara ezinbesteko jostorratza dutela. Bai Euskarari Saria ilusioz jaso dute, euskaraz jantzita.

Zergatik. Euskal Modaren aitindari... Horrela al da? Zertaz ari gara euskarazko modari buruz ari garenean?

Aitindari baino gehiago, uste dut euskal moda deritzonaren sortzaile eta partaide izateari buruz hitz egin genezakeela.

Moda, bere oinarrian, dagokion gizarte eta denboraren isla da. Hori hala, euskal moda, gure gizartearen elementu bat bezala harturik, adar anitzek eta desberdinek osaturikoa dela esan genezake. Izan ere, asko gara moda munduan euskal marka gisa ezagunak garenak, baina ez gara denok berdinak, norbera bere ezaugarriengatik baita ezagun. Hau argi utziz, **Zergatik**, mugimendu zehatz batean oinarritzen dela esan genezake. Moda, jolas bat bezala ikusten duen eta bere nortasuna jantzien bitartez adierazi nahi duen

emakumea da gure isla. Bere gorputza eta pentsamenduak mugatuko ez dituen forma asimetriko eta koloretsuak dituzten jantziak. Gure balioak eta moda ulertzeko era elkarbanatzen dituen pertsona orok, mugimendu berdina jarraitzen duten munduko beste herrialdeetako emakumeekin harremanetan jartzea lortzen du.

Zein balio hartzen du euskarak arroparen diseinu eta salmentan?

Lehen aipatu bezala, moda gure gizarte eta kulturaren isla da, gure jatorria eta oraina. Praktikotasunerantz begira jarritz, gure diseinuen izen askok dute euskal jatorria eta nola ez, gure salmenta ere euskaraz egiten dugu. Azken puntu honek berezko garrantzia du, izan ere, transakzio ekonomiko ez ezik, bezeroarenganako arretak erkidego erlazioak ere bultzatzen ditu

Gure diseinuen izen askok dute euskal jatorria eta, nola ez, gure salmenta ere euskaraz egiten dugu.

eta hala, gure bezeroentzat esperientzia bat da.

16 urte ondoren, zeintzuk izan dira aurrerapauso edo lorpen nabarmenak?

Urrats garrantzitsuenetako bat marka internazionalizatzea izan zen. Bestalde, maioristenganako zerbitzuetik bere denda propioak izatera heldu den marka bat izanik, lorpen handia da hori bere ibilbidean.

Gaur egun, laugarren denda propio bat ireki berri dugu Irunen. Gure lurraldean markak duen harrera bermatu

LANsarean
bilalan

www.lansarean.eus

 @lansarean



Enpresa eta profesional euskaldunak harremanetan jartzeko **webgunea**

- Lan bila zabilta?
- Lana eskaintzen duzu?



Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

eta indartuz eta gure bezeroekiko salmenta zuzena zabalduz. Aldi berean, gure *on line* denda ere ezin dugu ahaztu, azken aldian lan asko egin baitugu alor honetan.

Urrats garrantzitsuak eman dituzue. 2012. urtean Bai Euskarari Ziurtagiriaren "Bidean" maila lortu zenuten eta "Zerbitzua euskaraz" maila izatera iritsi zineten bi urte beranduago. Nola bizi izan duzue prozesua?

Gogotsu eta ilusioz, baina aldi berean oso modu naturalean. Zentzuzko bilakaera batekin esan genezake. Onura bikoitza du guretzat, barnera zein kanpora begira, lan taldean zein gure bezeroei eskaintzen diegun zerbitzuan.

Zergatik erabaki zenuten Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzea? Eta, zertan lagundu dizue gerora?

Euskal marka bat izanik, eta hori oso barneratuta daukagunez, ulergaitza egiten zitzaigun prozesu honen parte ez izatea.

Gure hizkuntzaren erabilera sustatu eta gure kulturaren parte garela sentituz, gure marka sortzen lagundu digu eta aldi berean gure bezeroenganako harrera modu argi eta eraginkor batean egiten lagundu digu, komunikazioan zein zerbitzuan.

Nolako da harremana bezeroekin? Eskertzen al dute euskaraz aratua izatea?

Azken urteetan bereziki, euskararen erabilera zerbitzuetan handitzen ari dela uste dut, gure gizartearen eremu ugarietan. Arropa erostera goazenean esperientzia hori atseginagoa bihurtu dezakegu, euskaraz arreta egiten badigute. Bezeroaren erosketaren esperientzia ahalik eta gozagarrien bilakatu dadin, argi daukagu euskaraz aritzeak laguntzen duela.

Nola zaintzen duzue euskara dendetan eta bestelako lan eremuetan?

Gure dendetako infografia eta seinale-tika guztia euskaraz egiten dugu, baita gure bezeroekiko zerbitzua ere. Barne komunikazio eta sail gehienetan ere euskaraz aritzen gara, eta bere erabi-



leratik haratago ere, euskararen aldeko ekimen askotan parte hartu eta elkarlanean aritzen gara: Kilometroak, Korrika, Nafarroa Oinez...

Prozesu honen alderik zailena? Eta saiakeraren fruiturik nabarmenak?

On line denda euskaraz eramatea da agian zailena den alorra. Baina bertan jartzen ari garen ahalegin guztiak emaitzak dituela ikusteak bere onurak ere baditu. Bezeroen aldetik jasotzen dugun maitasunak eta positibotasunak aurrera jarraitzeko indarra ematen digute.

Bai Euskarari Saria, Zergatik?

Atzean dakarren lan guztia aitortzeagatik, eta euskara gure parte izan dadin egindako ahaleginagatik. ●

Bezeroaren erosketaren esperientzia ahalik eta gozagarrien bilakatu dadin, argi daukagu euskaraz aritzeak laguntzen duela.

Getariako Elkano kalean dago Fuldain Farmazia, herriko kale nagusian. Miren Fuldain da arduraduna, eta farmaziaren kudeaketaz arduratzeaz gain, Farmazialari Euskaldunen Elkarte-ko (FEUSE) zuzendaritzako kide ere bada. Euskaltzalea, euskararen erabileraren aldeko hautua egina du farmazia ireki zuenetik, lanean zein bizitzako gainerako arloetan ere. Euskarak onurak besterik ez dizkio eragiten bere negozioari.

Miren Fuldain Farmaziaren arduraduna

Euskara, ezinbesteko botika



Zorionak lehenik eta behin. Bai Euskarari Saria jaso berri, nola sentitzen zara?

Poza eta harridura dira nagusi. Bate-tik, gure euskararekiko jarrera eta lana zuek aipagarri ikusteak poztu egiten gaitu; bestetik, ez genuen inolaz ere pentsatzen Getariako farmazia sarituen artean egongo zela, gure lana euskaraz egiten baitugu naturaltasun osoz.

Hiru langile zarete eta hiruak euskaldunak. Ezinbesteko ezaugarria al da farmazian?

Gutziz ezinbestekoa da farmaziako langile guztiak euskaldunak izatea.

Getaria herri euskalduna da eta ez zait burutik pasatzen euskara menperatzen ez duen pertsona bat egotea mostradorearen atzean. Herritarrenganako errespetu falta handia izango litzateke.

Langileen hizkuntza gaitasunaz aparte, nola bermatzen duzue euskararen presentzia?

Lehenik, bezeroei luzatzen diegun idatzitako informazio guztia euskaraz dago: maisu-formulen erabilera orriak, osasun aholkuak, baita salmenta tike-tak eta fakturak ere. Bestetik, farmazian ipintzen ditugun kartelak, guk ida-

Lehenengo hitza euskaraz egitea erraz bete daiteeken gomendio sendoa da.

tzitakoak badira, beti euskaraz daude; laborategiek prestatutakoak badira, ia beti erdaraz daude eta esaldiren bat euskaraz jartzen saiatzen gara. Ordu-tegia, izena eta abar euskara hutsean daude. Azkenik, hilean behin aldatzen dugun erakuslehiorako prestatzen dugun materialetan ere euskara agertzen da. Motzean esateko, bezeroarekiko

lotzen gaituzten arlo guztietan euskara baliatzen saiatzen gara.

Farmazia eta osasun arloan, orokorrean, zein da euskararen egoera? Aurrerapausorik antzeman duzue azken urteotan?

Ezagutzen ditudan farmazia gehienetan daude farmazialari euskaldunak. Hutsune handiena idatzitako informazioan datza. Bezeroei luzatzeko izaten ditugun oharrak eta aholkuak ia beti erdara hutsean daude; laborategiek, aldizkari profesionalek, Farmazialarien Elkargoen Kontseiluak, osasun arloko elkarte desberdinek prestatutakoak izaten dira. Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Farmazia saila eta EAEko Farmazialarien Elkargo Ofiziala dira, noizean behin, materiala euskaraz prestatzen duten bakarrak.

Aurrerapauso handia ikusi dut lanean aritu naizen 25 urte hauetan. Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialarekin ditudan harreman guztiak euskaraz egin daitezke, eta duela urte batzuk ez zen horrela gertatzen. Bizkai-ko Elkargoan ere euskara erabiltzen da, ekitaldi batzuk euskara hutsean prestatu ohi dituzte; Nafarroakoak argitaratzen duen aldizkarian ere euskaraz idatzitako artikulua agertzen dira; Arabakoaren egoera ez dut ezagutzen.

Osasun arloan, hutsune handiak daude. Euskaraz aritzeko gaitasuna dute zenbait sendagilek errazegi jotzen dute erdarara, eta beste hainbatek ez dute gaitasun nahikorik. Gure eskualdean keak egon ohi dira pediatria erdaldunak kontratatzeagatik. Osakidetza profesional euskaldunen ezagatik gertatzen dela esaten du, baina gaitz

egiten zait hori sinestea.

Etorkizuneko egoera hobea izango da. Gero eta biztanle gehiagok ezagutzen du euskara. Dakigunok hitz egiten badugu, aurrean dugunak euskaraz erantzun digu.

Zuek ere ekarpen handiak egin dituzue euskararen alde, batez ere, farmaziaren arloan eta horren ondorioa izan zen FEUSEk banatutako "Farmaburua saria".

Farmazia munduan euskararen alde ekarpenen bat egiten duenari FEUSE elkarteak, bi urtetik behin, "Farmaburua saria" ematen dio. Garai haietan farmazietako laborategietan maisu-formula ugari prestatzen ziren eta horrelako formula bakoitzari erabilpen-orria gehitu behar izaten zaiou. Gure farmazian orri horiek euskaraz idatzita zeuden, ia-ia 100 ziren, eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoaren laguntzarekin Euskal Herriko farmazia bulego guztien eskura jarri ziren, behar zuenak erabil zitzen. FEUSEn iritziz, horrek saria behar zuen eta niri eman zidaten 2007an. Dena den, erabilpen-orriak idazteko unean, farmaziatik pasa ziren farmazialari guztiek hartu zuten parte, eta denen izenean jaso nuen saria.

FEUSEko zuzendaritzan zaudela, nola edo zer egiten duzu euskararekiko duzun ikuspegi positiboa partekatu eta baliabideak eskaintzeko?

FEUSEn zuzendaritzan nago duela zortzi bat urtetik, diruzaina naiz. Elkarrearen helburua farmazia arloan euskararen erabilera indartzea da. Azken urteetako erronka nagusia Farmazia-Hiztegia berritzea eta digitalizatzea izan da. Elkarteko kideei lau hiletik

behin "Farmaberri" izeneko aldizkaria luzatzen zaie eta, bi hilabetero, gure lan arloarekin zerikusia duen buletin elektronikoa bat. Webgunea ere berritu da eta bertatik hiztegi eta beste argitalpenetara sartzeko aukera dago.

Zein gomendio emango zenioke farmazia, saltoki... bat ireki berri duen bati?

Lehenengo hitza euskaraz egitea erraz bete daitekeen gomendio sendoa da. Lehenengo berba euskaraz esatean, aurrekoari hizkuntza hori erabil dezakeela jakinarazten diogu. Ez da ezer kostatzen. Euskara sustatu nahi bada, badaude beste pauso erraz batzuk: musika euskaraz jarri, ordutegia, itxita-zabalik letreroxoak...

Zein balio du euskara negozio batean txertatzeak?

Balio handia ematen diot negozio batean euskara presente egoteari. Euskaldunok gure hizkuntza erabiltzeko eskubidea dugu, bizitzako arlo guztietan. Edozein negoziok euskara erabiltzen badu aukera ematen dio bezeroari gustora sentitzen den hizkuntzan hitz egiteko, eta hori aberasgarria da, bai negozioarentzat baita bezeroarentzat ere. ●

Edozein negoziok euskara erabiltzen badu aukera ematen dio bezeroari gustora sentitzen den hizkuntzan hitz egiteko, eta hori aberasgarria da, bai negozioarentzat baita bezeroarentzat ere.

**GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK**

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

Joxemari Sors eta Jon Jaka Elkar Fundazioa

Euskal kulturatik bizi, euskal kulturaren onerako

Elkar Fundazioaren “guraso” bezala izendatu genezake Joxemari Sorsek eta Jon Jakak osatzen duten bikotea. Berrogei urteko ibilbidea egin dute elkarrekin, euskararen eta euskal kulturaren sorruntzan, sustapenean eta garapenean. Gaur, erretiro aktiboa hartu dutela, gizartearekiko izandako eta izaten jarraituko duten jarrera eraginkorra saritu nahi izan dugu Bai Euskarari Sariaren bidez.

Elkar Fundazioa gertutik ezagutu eta sekretu gehiago deskubritu nahian, hitzordua egin dugu Joxemari Sors eta Jon Jakarekin. Espero genuen bezala, orduak eta orduak pasa genitzakeen herri honen historiaren atal funtsezkoa den bikotearen istorioak entzuten.

Sors & Jaka

Batak bestearen burua aurkezteko eskatu diegu **Elkarrek** Donostian duen egoitzan, etxean bertan, eta agerian utzi dituzte haien arteko elkartasuna eta konplizitatea.

Elkar Fundazioko lehendakaria da Joxemari Sors eta “primerako bidea” egin duela goraipatu nahi izan du bidelaguna den Jon Jakak, Elkar Fundazioko idazkariak. Sorsek ere, eskerrak eman dizkio urte hauetan, eta hasieratik, Joseba Jaka bere anaia zenarekin, euskal kultura sustatzeko izan duen jarrerarengatik eta Jakaren balioak nabarmendu ditu: elkarlana, umiltasuna, lan egiteko grina, profesionaltasuna eta militantismoa.

Euskara, kultura, enpresa eta etorkizuna izan dira elkarriketaren ardatzak. Bata bestearen aurrean eseri dira, bizitakoak gogorarazteko eta aurrera begirako ilusioa eta bateratasuna azaleratzeko. Haiekin egon ondoren, argi dugu eskarmentua eta gizatasuna ez zaizkiela falta, ez eta umorea ere.

Elkarren lehen pausoak, euskaratik euskararako

Berrogei urte atzera egin dugu **Elkarren** sorrera ulertzeko. Orduan, euskararen egoera ez zen erraza eta kultura-produkzioa oso urria zen, ezkutukoa, zentsura zela eta. Jaka anaiak euskal kultura kalera ateratzen hasi ziren eta 1976. urtean, Franco diktadorearen heriotzaren ondoren, **Bilintx**en izenean ireki zuten lehenengo denda, orduko euskal material guzti hori plazaratzeko toki duin bat izateko. Bikoteak irribarre gozo batekin gogoratu du nolako arrakasta izan zuen irekierak, euskaraz gizarteratzea izugarritzko oihartzuna baitzen garai horretan.

Bilintx ireki zutenetik, iparra argi izan zuten: “euskal kulturatik bizi, euskal kulturarako”. Jakak azaldu bezala, euskal kultura ogibide bilakatu zuten eta lortzen ziren etekin guztiak euskararen eta euskal kulturaren berrinbertitu nahi izan dituzte betidanik. Gaur egun, hori bera da **Elkar Fundazioa** bizirik mantentzen duen eta indartzen duen filosofia.

Euskal kultura, industria

Euskal kulturaren industriari buruz aritu da bikotea. Euskarak eta kulturak aurrera egitea nahi badugu, elkarlanetik sorturiko industriaz hitz egitea ezinbestekoa dela nabarmendu du **Elkarreko** lehendakariak. Gaur egun, harro daude haien tal-

KULTURA
EUSKARA
SUSTATZEN

elkar




deaz eta beste batzuek horrelako pausoak ematea onuragarria izango litzatekela adierazi dute, bidelagunak izateko prestutasuna erakutsiz. Azken finean, elkarlana izan da **Elkar Fundazioaren** ibilbidea markatu duena eta, aurrera begira ere, horrela jarraitzeko asmoa dute, euskal kulturak elkarrekin lan eginez egiten baitu aurrera.

Gizarte modernoan eta mundu zaballean kultura sortu, garatu eta zabalteko dauden giza baliabideei bitarteko ekonomikoak jartzea ezinbestekoa da, kultura eta ekonomia uztartzera jo behar da bete-betean. Horregatik arreta berezia izaten du Fundazioak euskal kulturarentzat azpiegitura eta egitura egokiak garatzeko garaian.

Baina, zer da Elkar Fundazioa?

“Munstro” eta “mundu globalizatua” hitzak entzun ditugun arren, “gizataldea” kontzeptuarekin gelditu gara. 450 pertsonen osatzen dute gaur egungo Fundazioa, ekoizpenean, liburu-dendetan eta banaketaren alorrean lan egiten. Fundazioaren baloreak argiak dira: elkarlana, eredu soziala, lurraldekotasuna... baina giltzarria berrinbertsioa dela azpimarratu du Sorsek, dena euskal kulturatik eta euskal kulturarako bideratzen dutelako.

Era berean, bertako jendearentzat produktuak bertan sortzea zein garrantzitsua den nabarmendu nahi izan du Jon Jakak, eta etorkizunean norabide beretik jarraitu behar dela gehitu du.



Euskal kultura vs. Paradigma berriak

Kulturaren kontsumoan aldaketa nabaria egon dela adierazi du bikoteak, paradigma berri baten aurrean gaude. Etorkizuna zein izango den asmatzea zaila den arren, argi dute mundu digitala gelditzeko etorri dela. Testuinguru horretan, bi arrisku ikusten dituzte: batetik, irakurleagoarengana iristeko zailtasuna eta, bestetik, enpresa indartsuen arteko lehia.

Horren aurrean, instituzioei kulturaren inbertitzeko deia egin diete, gizartearentzat onuragarria eta aberasgarria baita, ekonomikoki eta herri bezala hartuta.

Elkar eta gizartea etorkizunean

Elkarren etorkizuna giza-taldearen baloreetan oinarritu du Joxemari Sorsek, guztiz konbentziturik. Etorkizuneko gizarteari dago-kionez, kontsumoa, lana, kultura, etab. euskaraz aktibatzeke beharra azpimarratu du.

Jon Jakak itxaropentsu ikusten du **Elkar**, zuzendaritza talde berria proiektuarekin oso identifikatuta dagoelako. Gizarteari dago-kionez, etorkizunean, bizitzako arlo desberdinetan euskararen ahalduzaren beharra azpimarratu nahi izan du, batez ere, arlo profesionalean.

Laster, Enpresaren Foro digitalean...

Jon Jaka eta Joxemari Sorsekin grabaturiko elkarrizketa laster izango dugu ikusgai Enpresaren Foro digitalean, Enpresaren eta Bai Euskarari Elkartaren kanaletan. Euskal kulturaren pertsonifikazioak aurrez-aurre. ●



enpresaren

FOROA
2017

**SOLASALDIA - GOSARIA
EZTABAIDA-GUNEA**

LASTER, ENPRESAREN FOROAN...



EGAMASTER

*EGAMASTER kasuaren metodoa.
Arabatik mundu osora
Aner Garmendia eta Iñaki Garmendia*



SPRI

*Industria 4.0. Zertaz ari gara?
Alexander Arriola,
SPRIKO zuzendari nagusia*



ELKAR FUNDAZIOA

*Begietara begira
Joxemari Sors eta Jon Jaka*

10 urte iruditán

2007an sortu zen Bai Euskarari Elkarte, zazpi urte lehenago abian jarritako Bai Euskarari Ziurtagiriaren proiektua zabaltzeko eta sendotzeko. 10 urte pasa dira geroztik eta atzo izango balitz bezala gogoratzen dugu elkartearen sorrera. Gaur, urte hauetan guztietan bizi izandako une garrantzitsuak, lorturiko erronkak eta emandako garapena errepatatu ditugu. Milaka pertsonekin egon gara, ehunaka egitasmo partekatu ditugu eta emozio kontaezinak bizi izan ditugu.

1

Bazen behin eta bada orain

2007an sortu zen Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte, zazpi urte lehenago abian jarritako ziurtagiriaren proiektua indartzeko, elkarlanaren bidez garatzeko, zabaltzeko, sendotzeko eta gizartean erreferentziala izateko.

Urrats bat elkarlanean, denon artean egin nahi izan dugulako Bai Euskarari Ziurtagiria.



Komunitate eredugarria

2

Pozik egoteko modukoa da Bai Euskarari komunitatea osatzen duten Euskal Herri osoko milaka **entitatek urte hauetan eragin dutena**. Urte hauetako lan eredugarri eta haien borondatezko konpromisorik gabe, nekez egongo ginatkeke oraingo egoeran.



3

Administrazioa

Administrazioa ezinbesteko bidaidea da Bai Euskarari Elkartearentzat. Bidea, hala ere, ez da erraza izan. Garai aproposa da elkarrekin aukera berriak sortzeko.



4

Bilakaera

Bai Euskarari Ziurtagiriaren irudiak (2000-2017). Prozesu honetan Bai Euskarari Elkarteak, barrutik, eta kanpotik ere, eboluzio handia izan du.



5

Merezi dutelako, Bai Euskarari Sariak

Bai Euskarari sarien bitartez, alor sozioekonomikoan euskara sustatu duten eta ibilbide arrakastatsua eta eredugarria duten entitateak eta pertsonak saritu ohi ditu elkarteak.

Lazarraga Sariak

2010etik, bi urtez behin, Lazarraga Sariak antolatzen ditugu Arabako Foru Aldundiarekin batera. Helburu nagusia da Arabako Lurralde Historikoan euskararen alde lan egin duten enpresak edo-eta pertsonak saritzea eta haien ahalegina aitortzea.



7

Enpresarean, enpresa eta profesional sarea

Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatu nahi da Enpresarean proiektuaren bidez. Bi urtean behin antolatzen den Enpresarean azoka, Enpresarean Foroa eta Enpresarean.eus webgunea dira egitasmoaren ardatz.



8

Lansarean.eus, euskarazko lan-ataria

Euskal profesionalentzat, lan bila ari direnentzat eta lana eskaintzen duten enpresentzat erreferentziako lan-ataria da lansarean.eus eta, etorkizunean, zerbitzu hobea eskaintzeko eta euskaraz lan egiteko aukerak errazteko berrikuntza ugari egin ditu.



9

Elkarlanean, Lanabes



Bai Euskarari Elkarteak "Lanabes - Araban Euskara lanean" proiektuaren sorreran parte hartu du. Alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzeko eta handitzeko helburuarekin ari gara elkarlanean Araban erreferentzialak diren erakunde hauekin: Arabako Foru Aldundia, SEA - Arabako Enpresariak, Arabako Merkataritza eta Industria ganbara, Merkataritza Federazioa, Oreaka IT, Laneki eta Electra Vitoria.

10

Euskararen erabilera errazteko

Bai Euskarari Elkarteak saiatszen da bidaide eta laguntzaile izaten, prozesu horretarako baliabideak eta erraztasunak eskainiz.



“Lehen hitzak balio handia du”

Euskaraz kontsumituz, Gasteizko euskararen mapa osatuko dugu

Bai Euskarari Elkarteak kontsumoa euskaraz sustatzeko kanpaina bat abian jarriko du Gasteizen. Horren helburua izango da establezimendu eta kontsumitzaile gasteiztarrei bide berriak irekitzen laguntzea, euskara baliatu beharreko aldagai gisa harturik.

Kontsumitzaileak giltzarri izango dira kanpaina honean, erronka baita euskaraz dakiten edo-eta ikasten ari diren pertsonak euskaraz kontsumitzera animatzea, lehen hitza euskaraz eginez, Bai Euskarari ziurtagiria duten establezimenduetara bezero berriak erakartzea eta bertan kontsumitzea, eta gainerako establezimenduak euskarak eskaintzen duen balioaz ohartaraztea eta urratsak ematera eragitea.

“Gasteizko euskararen mapa” da proiektu honen mui-na. Bai Euskarari Ziurtagiridunek osaturiko merkataritza plana gizartearen eskura jarriko dugu, euskarazko kontsumoa errazagoa izan dadin. Era berean, merkataritza eta ostalaritzako establezimenduak mapan gehitzera animatu nahi ditugu, euskara negoziotan txertatzeak dituen onurak ikustaraziz. Beraz, alde batetik, euskarazko kontsumoa sustatuko dugu kontsumitzaileen artean eta, bestetik, euskarazko eskaintza areagotzea bilatuko du pixkanaka handitzen joango den Gasteizko euskararen mapak.

Gehitu zaitetz mapara!

Une honetan ehun establezimendu inguruk osatzen dute Gasteizko euskararen mapa eta gainontzeko merkataririk eta ostalariak gehitzera animatu nahi ditugu. Parte-hartzaileak Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez identifikatuko dira, bakoitza dagokion mailarekin: “Zerbitzua eta lana euskaraz”, “Zerbitzua euskaraz” eta “Euskararen bidean”.

Establezimenduek dagokien mailaren adierazgarri bat jasoko dute, kontsumitzaileei Gasteizko euskararen maparen parte direla erakusteko.

Bezeroei euskaraz egiteko gonbita

Euskararen erabilera erraztu nahi dugu Gasteizko establezimenduetan eta, horregatik, horietan lanean ari diren pertsonari bereizgarri bat erabiltzea proposatuko zaie. Horren bitartez, kontsumitzaileak euskaraz egiteko gonbidatuko dira.

Bi eredu egongo dira: euskaraz lan egiteko gaitasuna dutenek soinean “Euskaraz?” bereizgarria eramango dute, bezeroak jakin dezan euskaraz aritu daitekeela berarekin. Biga-

**LEHEN HITZAK
BALIO
HANDIA DU**

Euskaraz? bai

Euskaraz? poliki, mesedez bai

**Euskaraz kontsumituz,
Gasteizko euskararen
mapa osatuko dugu**

Pon en valor el euskera. ¡Da el paso!

bai euskarari baieuskarari.eus
f t r i o o i g
Lan eta bizi euskaraz

ren eredua, “Euskaraz? Poliki, mesedez” izango da, ikasten ari diren saltzaileentzat edo euskaraz aritzeko erabateko segurtasuna ez duten langileentzat. Bi kasuetan, helburua izango da kontsumo harremanetan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea.



Kontsumitzailea bazara, euskara baliatu beharreko aldagaia

Bai Euskarari Elkarreak euskara erabiltzearen onurak erakutsi nahi dizkio kontsumitzaileari eta horretarako laguntza eta baliabideak eskaini.

Zergatik kontsumitu euskaraz?

- Zure harreman-hizkuntza delako
- Konfiantza eskaintzen dizulako
- Kalitatearen ikurra delako
- Jasangarria delako
- Gertutasuna eskaintzen duelako
- Euskaraz erosi, euskaraz lan egin eta euskaraz bizi nahi duzulako

Merkataria bazara, euskara baliatu beharreko aldagaia

Gasteizko euskararen mapa osatzeko eta merkatariei gehitzeko gonbita zabaldu nahi dugu, euskara txertatzeak onura anitz dituela frogatuz eta prozesua errazteko baliabideak eskainiz.

Merkataritzan, zertarako euskara?

- Markaren posizionamendua hobetzeko
- Bezeroarekiko gertutasuna eta konfiantza sortzeko eta sendotzeko
- Bezero kopurua handitzeko eta fidelizazioa indartzeko
- Merkatu berrietan sartzeko edo-eta etekinak areagotzeko
- Talde kohesioa eta motibazioa bizkortzeko
- Produktu /zerbitzu lehiakorrek eta kalitatekoak izateko
- Euskaraz bizi eta euskaraz erosi edo euskaraz lan egin nahi duten pertsonen aukera errazteko
- Lurraldearen eta pertsonen ongizatea hizkuntzekin / euskararekin ere lotzeko



Humedal Informatik, Ttilika arropa denda eta Martinez Rementeria farmazia

Kanpaina Gasteizko hiru negozio hauetatik abiatu da: Humedal Informatik, Ttilika arropa denda eta Martinez Rementeria farmazia. **Humedaleko** Txus Torres eta Gorka Perez de Mendiola, **Ttilikako** Iñigo de Markos eta **Martinez Rementeria farmaziako** Gotzon eta Sara Martinez izan dira kanpainaren protagonistak eta bakoitzaren egoera ezagutu nahi izan dugu. Euren bizipenen bidez, Gasteizen euskara merkataritzan gehitzea oso aberatsa izan daitekeela erakutsiko diegu gainerako saltoki eta entitateei.

Izan ere, gure protagonistek jarrera positiboa erakutsi dute egitasmo honen eta negozioaren euskalduntze prozesuaren aurrean. Martinez Rementeria farmaziako ordezkariak aitortu digute kanpaina honetan sinesten dutela eta euskararen sustapenerako pauso garrantzitsua izango dela; era berean, gehitu dute bezeroaren aurrean euskararen balioa argia dela eta farmazian bide beretik jarraitzeko asmoa dutela, ezagutza eta erabilera areagotzeko pausoak ematen. Ttilikan ere, Iñigo de Marcosek adierazi du horrelako saiakerak beharrezkoak direla bai merkatarientzat eta bai kontsumitzaileentzat ere. Bai Euskarari Elkarreaken laguntza eskertzen du, Gasteizko pertsona asko bezala, euskaldun berria delako eta poliki-poliki egunerokotasunean euskara erabiltzea lortzen ari delako; fruituak ikusten ditu eta horrek motibatzen du.



ALOR SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA ERRAZTEKO BALIABIDEAK



#BaiPraktikaEgokia Euskaraz lan egiteko 20 jarraibide:

euskaraz lan egiten lagunduko dizun jarraibide egokien gida.
www.baieuskarari.eus/eu/bai-euskarari-komunitatea/praktika-egokia-eta-eredugarria-euskaraz



Autodiagnostikoa:

hizkuntzaren egoeraren diagnostikoa sei pausutan, azkar eta erraz, egiteko aplikazioa.
www.baieuskarari.eus/eu/auto-diagnostikoa



Baliabideak:

baieuskarari.eus atarian establezimenduen hizkuntza egoera hobetzeko informazio, aholku, material... anitz.
www.baieuskarari.eus/eu/baliabideak



Diru-laguntzak:

euskararen ezagutza ere erabilera sustatzeko laguntza ekonomikoak.
www.baieuskarari.eus/eu/baliabideak/O-diru-laguntzak



Lansarean.eus lan-ataria:

enpresa edo-eta profesional euskaldunak ezagutzeko aukera errazten duen euskarazko lan-ataria.
www.lansarean.eus



Enpresarean.eus:

enpresa eta profesionalen sarea; foroak, azokak, hitzaldiak... elkarlana eta negozio harremanak euskaraz sustatzeko sarea.
www.enpresarean.eus



Lanabes Araban euskara lanean:

Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzeko eta handitzeko lanean diharduen egitasmoa.
www.lanabes.eus



Bai Euskarari Ziurtagiria:

euskara erabili eta sustatzen duten enpresa, saltoki eta entitateak identifikatzeko ikurra.
www.baieuskarari.eus/eu/proiektuak/ziurtagiria



Bai Euskarari komunitatea:

baieuskarari.eus atarian Bai Euskarari Ziurtagiria duten establezimendu guztien zerrenda eta kokapena aurkituko dituzu.

Bai Euskarari
 ziurtagiri bat baino askoz gehiago



Bai Euskarari Elkarteak eskaintzen du



baieuskarari.eus




Lan eta bizi euskaraz



Ziurtagiria
 Euskara erabili eta sustatzen duten enpresa, saltoki eta entitateak identifikatzeko ikurra.

baieuskarari.eus



Enpresarean
 Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko elkarlana sustatzeko sarea.

enpresarean.eus

LANsarean bilalan

Lansarean
 Enpresa edo-eta profesional euskaldunak ezagutzeko aukera errazten duen lan-ataria.

lansarean.eus